

## **Adinekoentzako kultur aisiako ikastaroak, orain, euskaraz ere bai**

Aisiazko Ikaskuntzen Institutuak 15 urte baino gehiago daramatza «Prestakuntza, aisiarako bide» proiektua garatzen; horretarako, adinekoentzako kultur aisiako ikastaroak antolatzen ditu. Duela urte batzuk, besteak beste zinema, literatura, artea, historia, erlijioa, musika edo psikologia aztertzen duten ikastaro horiek arrakasta handiz hasi ziren ematen zenbait udalerritan: Amorebieta-Etxanon, Arrigorriagan, Basaurin, Durangon, Eibarren, Galdakaon, Getxon. Orain, Institutuak beste apustu bat egin du: ikastaro horiek euskaraz eskaintzea. Otsailaren 22an hasi zen bigarren sei hilekoko programa, euskaraz eskainitako ikastaro berriekin. Lehenengo «Euskal literaturaren testuak eta kontestuak» izenekoa da; eta bigarrenak «Psikologia positiboa: erlaziozko ongizatea bermatzen duten osagaiak» aztertuko ditu.